

# Manex Goyhenetche (1942-2004)

(Manex Goyhenetche (1942-2004))

Davant, Jean-Louis

Aizagerria. F-64130 Arrast-Larrebieu

BIBLID [1136-6834 (2011), 37; 13-17]

Jaso: 2006.01.03

Onartu: 2011.02.21

---

*Nafaqna Beheqkn Ezseqnzt bin rnoqt a, mendikn labnqaj familia basean, gaxsaqnan Plneqmelekn fqaidea, erkna kasnlkhesan lehen mailakn iqakarlea. Geqñ hirsnoqkn dnksnoqgna Inqst qk, jakinsza hnqpsan iqakasi dt Searkkn ikarsesxeesan esa Bainnkn Fakt Isasean, Et rkal Heqjkn hirsnoqaz libt-qt ak idasziz. Ikarekn idazkaqa izanez, EHUkn rnoqean oaqe haqst dt, geqñ hnqkn zt zendaqa izan da. Bersalde Enbasa esa EHAS animast dist. Mendignizalea izanki, Biaqknkn bnqst an bizia galdt zt en.*

*Gilza-Hizak: Baxenabaqsaqa. Bnqst kna. Iqakarlea. Hirsnoqalaqa. Abeqzalea. Milisansea. Kt deaszailea. Mendignizalea.*

*Nació en Ezseqnzt bi, Nafaqna Beheqea, en t na familia de agqct lnoqer de mnnsaia. En rt jt uenst d ft e fqaile en Plneqmel y oqfer nqde edt cación oqmaqa en diueqar erct elar casólicar. Pnrseqnqmense cnnrigt ió el dnscnqadn en Hirsnoqa, arignast qa pt e imoaqsiqa en lnr cnleginr de Searka y en la Fact Isad de Bainna. Arimirmn, ercqbió uaqnr libqnr de hirsnoqa de Et rkal Heqja. Siendn miembq de lkar, oaqcioó en la cqación de la EHU y, onrseqnqmense, ft e rt diqescnq Tambián ft e imot lrnqde Enbasa y de EHAS. Eqñ mnnsañeq y ft e en la mnnsaia de Biaqñ dnnde oeqdió la uida.*

*Palabqar Clau: Bajn nauaqñ. Mnnsañér. Pqñfer nq Hirsnoqadnq Abeqzale. Milisanse. Gersnq Mnnsañeq.*

*Manex Gnihenese ers né à Ezseqnzt bi (Nafaqna Beheqea), danr t ne famille de oayranr de mnnsagne. Il a ésé mnine danr ra jet nerre, à Plnéqmel, es maisq d'écnle oqmaiq danr difféqnsér écnler cashnlipt er. Plt r saqñ, il nbsienst n Dnscnqas en Hirsnoqe, t ne masiqe pt 'il dir oenrais danr ler écnler de Searka es à la Fact Isé Baynne. Il a égalemens écqs olt riet qñ liuqer rt ql'hirsnoqe d'Et rkal Heqja. Membq d'lkar, il a oaqcioé à la cqásinn de l'EHU, dnns il a ésé onrseqñet qmens Diqescet q Il ers égalemens l't n der oqmmset q d'Enbasa es d'EHAS. Il ésais aloinirse es c'ers danr la mnnsagne de Biaqne pt 'il ers mnq.*

*Mns-Clér : Bar-nauaqñir. Mnnsagnaqñ. Pqñfer ret q Hirsnoqen. Abeqzale. Milisans. Gersinnaiq. Aloinirse.*

## **MANEX GOYHENETCHE (1942-2004)**

Manex-en ezagutzak egin nituen Burgosko auzi denboran, duela laster 37 urte. Hirurogeita hamarreko abendua zen, iluntze batez, Baionako karrika batean. Lehenbiziko manifestazioa zen, ibilaldi mehea, baina gu han ginen, eta ondotik ere maiz hola gertatuko zaigu. Gero hamar urtez usu elgarrekin lan egin dugu Manexek eta nik, beste bakar batzuekin, abertzale mugimendu politikoan. Erran dezaket uztarriko lagun izan ginela biak, idi eta behi pare guti baitzen orduan euskal politikaren alor idor eta zabalean.

Lehenik Enbata mugimenduan izan zen hiru urtez. Enbataren azken urteak ziren, urte gogorrak, nahiz ez diren eztitu geroztik euskal aferak. Baina erran berri dutan bezala, guti ginen orduan, eta beti ber bizkarretara erortzen ziren karguak eta kargak, lanak eta zamak, auziak eta debekuak. Aberri Egunak ere debekatuak izan zaizkigun bi urtez, eta Maulekoa 1972an Manexek antolatu zuen eta kudeatu debekuen artetik. Azkenean Enbata mugimendua bera debekatu zuen Frantziako gobernuak 1974ko urtarril ondarrean.

Laster sortu zen EHAS, Euskal Herriko Alderdi Sozialista. Euskal Herri osora hedatu zen. Baina bere autonomia bazuen batetik iparraldeak, bestetik hegoaldeak, bakoitza bere buruzagitza bereziarekin. Buruetarik izan zen beti Manex. Politikan orokorki Enbataren segida hartu zuen EHAS-ek, Itxasun 1963an finkatu bi helburu nagusiekin: batetik departamendua eta euskara, bestetik Euskadi European. Haatik departamendu baten eskaera zabaldu zuen departamendu eskualde batera, Akitaniako eskualdeak zituen ahalmenak ere ipar Euskal Herriarentzat eskatuz.

Sozial aldetik, Enbata baino urrunago joan zen EHAS. Mugimendu frentista zen Enbata. Sozialismoaren hautua egin zuen aldiz EHASEk argi eta garbi, sozial-demokraziaren eta ezker muturraren artean. Hor gostura zabilan gure Manex. Baina Enbatan ere jende xehearen alde agertua zen, langileen borroka sustatuz eta haien berriak emanez Enbata kazetan.

Deusen beldurrik ez zuen Manexek, militante gogorra zen, iraunkorra, hats luzeko gizona. Lan mota guzietara plantatzeko prestik zagon beti: trak, afixa, tindatze, biltzar, mintzaldi, artikulu, kazeta plegatze baita hedatze, bozka... Iduri zukeen beti horretan ari izana zela, eta ez zuela behinere besterik egin.

Holakoa zen euskal politikan hamar urtez ezagutu nuen Manex Goyhenetxe. Bi eskuz ari zen hor, baina beste lan askotan ere parte hartu du, bereziki euskalgintzan eta historiagintzan, iduri bailuke Indiako jainko eta jainkosa batzuek bezala, beso pare andana bat bazuela.

1. Manex Goyhenetche 1942ko irailaren 22an jaio zen Nafarroa Beherean, Garaziko Herrian, Ezterenzubiko udalerrian, Intzagaraia baserri etxean.



Bost haurrideetatik laugarrena zen, azken semea. Aita etxe horretako jabea, ama Ezterenzubi Mendiburuko alaba, Etchamendy familiakoa, Eñaut idazle-kantari ezagunaren izeba. Nekazari etxea da Intzagaraia, mendikoa, sei ehun metro gorako muno baten kaskoan kokatua. Orreaga eta Zuberoako gailurren artean dago, Errozate hegitik eta Iratiko basotik hurbil. Menditarra zen beraz gure Manex.

2. Lehen mailan ikasi zuen Ezterenzubiko eskola publikoan. Bigarren maila hasi zuen Donibane Garaziko Mayorga kolegio katolikoan, eta bukatu Donibane Lohizuneko Béthanie lizeo (instituto) halaber katolikoan, Ploermeleko fraide irakasleen manupeko. Batxilergoa lortuz bigarren maila bukatu zuen 1963ean.
3. Fraidetzeko lehen botoak 1962an egin zituen, eta osoak 1967an. Fraide egongo da 1972raino. Bitartean ez du denborarik galduko. Occitaniako Tolosan soldadutza eginik erizaingoan, hots gaixoak artatuz, gero historia-ko lizentzia lortuko du hiri horretako unibertsitate publikoan.
4. Bigarren mailako irakasle izango da Ploermeleko fraideen ikastetxeetan sei urtez, 1966tik 1972ra, lehenik Lurden hiru ikasturtez (1966-69), gero Donibane Lohizunen biez (1969-71), azkenik Bretainiako Chateaulin hirian beste batez (1971-72). Hor Euskal Herritik urrundu zuten bere buruzagiek,

antza denez aberriari zion atxikimendu “handiegia” gatik. Handik ultimatuma bota zien gure Manexek, Euskal Herrira itzularaz zezaten, bestela fraidegoa bazter utziko zuela. Haiek ezetza eman! Beraz Manex anaiditik atera zitzaien 1972an, hitzeman bezala. Angelun bizi izan da geroztik.

5. Hor euskal politikan sartu zen erdiz-erdi, Enbata mugimenduaren baitan, honen azken bi urteetan (1972 eta 1973). Frantziako gobernuak Enbata debekatu zuen 1974ko urtarril ondarrean. Jarraian agertu baitzen EHAS alderdia, horren sortzaileetatik izan zen Manex. Gero buruzagi eta sustaizaile onenetatik izango da 1981ko udaberriraino. Hor alderdia bere nahiz ezabatuko da. Langile porrokatua izan zen beti Manex, etenik gabekoa, euskal militantziako sail eta maila guzietan sartua, lan xumeenetatik hau-tagai eta kazetari karguetaraino.
6. Kulturaren alorrean ez zuen gutiago egin. IKAS elkarteko idazkaria izan zen 12 urtez, 1971tik 1983ra. Hiru sareetako irakasleak (publiko, katoliko eta ikastolakoak) elkarlanean biltzen ditu Ikasek, eta bereziki euskarazko liburuak egiten haiekin. Gainera Ikasek eta Euskaltzaindiak Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) elkarrekin eratu baitzuten, Manexek horren lanak antolatu zituen lau aldiz, Haritschelhar jaunaren ardurapean, Ikaseko lehendakaria baitzen hau, eta Euskaltzainburuordea. 1973an eta 1974an Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeo publikoan bildu zen UEU; 1975ean eta 1976ean Uztaritzeko Landagoien bilgunean; gero Iruñen, eta hiru ikasturtez UEUko zuzendaria izan zen Manex Goyhenetche (1977, 78, 79).
7. Beti Euskaltzaindiaren eta Ikas elkartearen ardurapean, Haritschelhar jaun buru, Baionako erakustokian Manexek antolatu zituen, 1981eko udazkenean, “Euskararen eta euskal kulturaren jarraldiak” (Assises de la langue et de la culture basque). Hor ere Manex Goyhenetche izan zen idazkaria eta kudeatzailea. Bilkura ideki horietatik, elkarreketako eta bestelako parte hartzaile guztien elkarrizketatik atera zen liburu zuri bat, “Pour un statut de la langue et de la culture basque” deitua: ondotik egin diren lan eta eskakizun guztien iturria eta oinarria izan dugu.
8. Seaska elkarteko lehen langile iraunkorra izan zen lau urtez Manex Goyhenetche (1977-81).
9. Gero Seaskako ikastoletan 22 urtez irakasle izan zen, erretiroan sartu arte (1981-2003):
  - Baionan bi urtez (1981-83)
  - Kanboko lizeoan 18 urtez (1983-2001)
  - Baionakoan ikasturte batez (2001-02)
  - Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan azken urtean (2002-03).

10. Beti Seaskako lizeoen sarean, ikastetxe zuzendari egon zen Manex Goyhenetche lau ikasturtez: lehenik bi urtez Kanboko Xalbador ikastetxean (1992-94); gero beste biez Baionako Bernat Etxepare ikastetxean (2001-03).
11. Baionako Fakultate publikoan ere Historia irakatsi du doktor titulua lortu ondoan (1984).
12. Doktoregoko bi tesi egin zituen, epaimahaiaren oniritzia irabaziz Paueko Unibertsitatean:

Lehenik III. zikloko tesia: « Analyse critique du For moderne de Basse-Navarre » (1984).

Gero formula berriko tesia: « Analyse critique de l'historiographie basque du XVI<sup>e</sup> au XX<sup>e</sup> siècle » (1992).

13. Historialaria: panfletoak idatziz hasi zen, Frantziak aspalditik barnean ere daraman kolonialismoa salatuz. Eugene Goyheneche historialaria sonatuak kritikatu zuen, akats andana bat azpimarratuz. Hortik zerbait ikasirik, burdina beroa joaz, historialari sakona bilakatu zen bidenabar gure Manex ere.

Abertzalea izanagatik, ohartu zen historiak ez duela nationalistak izan behar: ez besteen historia ofizialak, naski, baina ez gureak ere! Haatik nazionala izan daiteke, eta hara Manex Goyhenetcheren xede nagusia: euskaldunen historia nazionalaren idaztea, iparraldetik ikusita.

Hogei bat liburu eta liburuxka idatzi ditu, gehienak frantsesez, baina batzuk euskaraz, adibidez *Lapurdi Historian*; artikuluak ere ugari, bi hizkuntzetan. Obra nagusia *Histoire Générale du Pays Basque*, bost liburutan. Azkena, XIX. mendeaz, hasirik utzia, 2005ean bukatu dio idazle multzo batek.

14. Mendigoizalea ere bazen Manex, Pirinio, Alpe, Andetako kaskoen maitalea. Zoritzarrez hain kutuna zuen mendiak beretu du Biarnoko amildegí batean, 2004ko maiatzaren bian. Goian bego, bere seme bakarrarekin.